



berriak

OSAKIDETZA

06/04/2016

LEHEN ARRETA KO MEDIKUAK: BEGIRATU NOMINA ADI!!

ELAk ikusi ahal izan du lehen arretako hainbat medikuren nominatan ez dela azaltzen asistentzia pisuari dagokion osagarririk. Egoera hau bereziki behin-behineko langileen artean ematen ari da, baina ez soilik kasu horietan. Begiratu zure nomina eta zalantzarik baduzu etorri sindikatura!!

Lehen Arretako medikuek, bai pediatria zein famili-medikuek, asistentzia pisuari dagokion osagarri bat kobratu behar dute, OTI edo LKUE kontzeptuen arabera (erdaraz TIS edo URCT).

ELAk ikusi ahal izan du hainbat eremutan osagarri hau ez dabilzala behar bezala ordaintzen. Jadanik salaketa bat martxan jarri dugu eta langile horrentzat hileroko 1000 euroko ordainketa eskatu dugu.

Egoera hau bereziki behin-behineko langileen artean ematen ari da eta, are gehiago, pediatriako kontsultak artatzen ari diren famili-medikuen artean.

Behin-behineko langileek izugarrizko prekarietate egoerari aurre egin behar diote, egunero telefonoari adi egon behar izaten dira egun horretan lan egin beharko duten ala ez jakiteko, lan egin behar dutenean lan-karga izugarriak beregain hartu behar dituzte ezagutzen ez dituzten gaixoeekin eta, gainera, ez dute dagokiena kobratzen.

Kontzeptu hau lau urteko atzeraeraginez erreklamatu daiteke. Zenbateko garrantzitsuak izan daitezke, beraz.

Begiratu zure nomina eta zalantzarik baduzu etorri sindikatura, erreklamazioa egiten lagunduko dizugu.

**LAPURRETA GEHIAGORIK EZ!!
ETORRI SINDIKATURA**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA